

## URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

<b>IKASTETXEA</b>	CPM FRANCISCO ESCUDERO MKP	<b>KODEA</b>	012681	<b>IKASTURTEA</b>	2016-2017
<b>IRAKASGAIA</b>	HARMONIA (BAXU ELEKTRIKOA, GITARRA ELEKTRIKOA, SAXOFOIA)	<b>MAILA</b>	IRAKASKUNTZA PROFESIONALEKO 3. MAILA		
<b>IRAKASLEAK</b>	IÑIGO PEÑA MARINAS				

HELBURUAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
<p>1. Harmonia tonala ondo menperatzeko beharrezkoak diren oinarrizko elementu teorikoak ezagutzea.</p> <p>2. Musika herrikoi modernoaren estiloetan erabiltzen diren akordeen zifratua ezagutzea eta menperatzea.</p> <p>3. II-V loturaren aukera guztiak ezagutzea, mota guztiak landuz eta beharrezkoak diren ariketa guztietan aplikatuz: analisia, harmonizazioa, konposizioa, e.a.</p> <p>4. Akorde mota guztiak eta edozein posiziotan ondo erabiltzea, hau lortzeko beharrezkoak diren laneetan erabiliz.</p> <p>5. Sistema tonal modernoan aurki ditzakegun aspektu teknikoak, konposatzeko prozedurak eta transformazio motibikoak identifikatzea, standard diren hainbat tema analizatuz.</p> <p>6. Musika tonal modernoan harmonizazio eta berharmonizazioak egiteko behar diren baliabide guztiak ezagutzea.</p> <p>7. Temak konposatzea, balibide melodiko ezberdinak garatuz, doinua eta zifratu harmonikoa ere idatziz.</p> <p>8. Elkaraldatze modal akorde guztiak ezagutzea, harmonizazioan eta konposizioan aplikatuz.</p> <p>9. ikasturtean zehar antolatuko diren ekintzetan parte</p>	<p><b>1. Harmoniaren oinarrizko elementuak ezagutzea eta haren erabilpena menperatzea:</b></p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak, harmonia tonalaren elementuak ezagutzen dituela eta era berean haren eguneroko bizitzan aplikatzeko gaitasuna duela egiaztatuko da.</p> <p><b>2. Musika modernoaren zifratuaren kontrola edukitzea, bai tema baten akordeak identifikatzeko bai doinuak idazteko gaitasuna erakutsiz:</b></p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak, partitura baten gainean akordeak identifikatzeko eta era berean, akordeak sailkatzeko eta haren konposizio bati ondo jartzeko duen gaitasuna egiaztatuko da.</p> <p><b>3. Ariketa praktikoak egitearen bidez, akordeak eta haien posizio ezberdinak ezagutzea eta haien praktika menperatzea</b></p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez, harmonia tonal modernoan osatzen duten akordeak identifikatzeko, ezagutzeko eta era ezberdinetan idazteko duen gaitasuna egiaztatuko da.</p>

<p>hartuz, musika, hainbat ikuspuntu ezberdinetatik baloratzea.</p> <p>10. Ikasteko ohiturak hartzeko teknikak erabiltzea, aztertzeko eta harmonia egiteko gaitasuna garatuz.</p> <p>11. Programaketa honen edukietan sakontzeko asmoz, teknologí baliabideak erabiltzea.</p>	<p><b>4. Musika tonal modernoaren akorde bakoitzean tensioak ezagutzea eta praktikan ondo erabiltzea eta akorde bakoitzari dagokion eskala ondo jakitea:</b></p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak, haren bizitza profesionalean aurki dezaken edozein akorde ondo ezagutzen duela eta praktikan ondo erabiltzen duela egiaztatuko da.</p> <p><b>5. Tema bat ikuspuntu ezberdinetatik analizatzeko gaitasuna erakustea:</b></p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak, tema batean erabili diren idazteko baliabideak eta praktikan jartzeko baliogarriak izango diren idazteko teknika guztiak aztertuz ezagutzen dituela egiaztatuko da.</p> <p><b>6. Doinuen idazkera, idazkera motibikoa menperatzeko hainbat baliabide kontuan izanez:</b></p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez, konposatzeko hainbat baliabide tekniko menperatzen direla egiaztatuko da, praktikan aplikatuz.</p> <p><b>7. Ariketa praktikoak eta idatziak egiteko, erabiltzen diren baliabide teknologikoak erabiltzeko menperatasuna erakustea:</b></p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak, ikasturtean zehar egiten diren lan praktikoak egiteko baliabide</p>
---	--

	<p>teknologikoak erabiltzen dakiela egiaztatuko da.</p> <p><b>8. Ikasteko hainbat teknika eta ikasturtean zehar egin behar diren ekintzak ondo egiteko ohiturak ezagutzea:</b></p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak, ikasturtean zehar egin behar dituan lanak ondo prestatzeko gai dela eta ikasteko gaitasuna duela egiaztatuko da.</p>
--	---

### EDUKIEN SEKUENTZIA

	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Bitarte melodikoak eta harmonikoak, eskalak eta harmadura tonalak, akorde triadak, kuatriadak, oinarrizko egoeran eta inbertituak, akorde Maj6 eta m6, sus2, sus4 eta add9, erritmo harmonikoa.</li> <li>2. Tonalitate maiorra: tonalitate maiorrean unibertsoaren eraketa; akorde diatonikoak eta kromatikoak, modo maiorrean sortzen diren akorde guztien eskala-akorde erlazioa, tensio posibleak eta akorde bakoitzaren ukatu behar den nota ala notak.</li> <li>3. II-V lotura harmonikoa: definizioa eta aukera guztien praktikan jartzea: II-V hedatuak, jarraituak, e.a. Ariketa praktikoetan aplikazioa: berharmonizazioa eta konposizioa, egitura harmonikoak egitea.</li> <li>4. Tonalitate menorra: tonalitate menorrean, unibertsoaren eraketa; modu menorrean sortzen diren eskalak; modo menorrean, akorde bakoitzaren eskala-akorde erlazioa, tonalitate menorrean eskala guztiak kontuan izanez; tensioak eta ukatu behar den nota ala notak.</li> <li>5. Kadentzia autentikoaren definizioa eta kadentzien sailkapena; plagala, modu maiorrean erabiltzen diren subdominante menorrak, pikardiazko hiruduna, kadentzierdiak, ariketa praktikotan aplikazioa.</li> <li>6. Tema eta kanta herrikoien harmonizazioa, bai modu maiorrean bai menorrean: harmonizazio progresiboa, gradu bakarrik erabiltzetik: I, IV, V, 7. Harmonizaziora iritsiz, pasako akorde gutxituak sartu arte. Tonalitate maiorraren eta menorrean unibertso tonala eratzen duten akorde guztien funtzionamendua azalduko da. Harmonizazioa eta berharmonizazioa lantzeko, kanta herrikoiak erabiliko dira, astero interpretatuz.</li> <li>7. Temak idaztea hainbat baliabide konpositiboak erabiliz; errepikapen motibikoa, nota gidariak, sekuentzi motibikoa, diseinu interbalikoa, aurrekari-atzekari idaztea, e.a.</li> </ol>
--	---

8. Akorde berezien idazkera: V7sus4, V7alt, eskala-akorde erlazioa, tensioak erabiliz, e.a.
9. Lau ahotsetarako erabilpena: harmonia gelditua, lotura harmonikoa, ahotseen arteko mugimendua, lotura melodikoa, doinuaren ahots gidaria eta harmoniaren oinarria.
10. Hainbat temaren analisia, baliabide konpositiboak erabiliz eta eskema formal eta harmonikoa ere adieraziz.
11. Modu maiorrean bai menorrean obrak konposatzea, ikasitako baliabide konpositibo bakoitza aplikatuz.
12. Entrenamendu auditiboa garatzea, emandako egitura harmonikoen hainbat diktaketa eginez, hainbat tonutan pianoan interpretatuz: lau ahotsetarako ariketak eginez, oinarrizko egoerane ta akorde inbertituak ere landuz.
13. Doinua apaintzeko noteen identifikazioa eta sailkapena: pasako notak, bordadurak (floreoak), atzerapenak, apoiaturak, aurrerapenak (jazzean, gerturatzeko notak deritzonak), iheskariak, nota pedala, hainbat partituraren analisia eginez, idazteko ariketa praktikotan ere aplikatuz.
14. Ikasturtean zehar egiten diren ekintza guztietan prestakuntza-eskemak, mapa konzeptualak eta antolatzeo hainbat eskema egitea.
15. Ikasturtean zehar egiten den lana praktikan jartzeko ekintzeetan partizipazioa: ikasleen harmonizazio eta konposizio lanak, taldekide bakoitzaren erreperitorioetik hartuta den obra baten azterketa, zentru barruan a audiciones y conciertos, dentro y fuera del centro.
16. Baliabide teknologikoen erabilpena, ikasturtean zehar egiten den lana praktikan jartzeko antolatzen diren ekintzetan bereziki.

## METODOLOGIA

- Klaseei dagozkien ariketa aproposak
- Analisi ala harmonizazioa egin aurretik, eskema tonalak ala modalak egitea.
- Tema musikalen analisia: analisi harmoniko-formala egingo diren tema guztietan derrigorrezkoa izango da. Baliabide musikal konkretu bat lantzeko asmoz analisi ariketeetan, baliabide hori azpimarratuko da.
- Hainbat temaren harmonizazio-berharmonizazio lanak.
- Ikasgai bakoitzaren pausoak jarraituz, hainbat temaren konposizioa.

**Irakasleak, terminoen ikasketa errezteko asmoz hainbat eskema errezteko ditu, ikasleek, asteroko laneetan era progresiboan ikasi ditzan.**

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
<p><b><u>Lehen hiruhilabete:</u></b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Diktaketa harmonikoa: 4-8 konpaseko egitura harmonikoak, tonu maiorrean, gradu tonalak bakarrik aipatuz.</li> <li>Modu maiorrean idatzita dagoen tema baten analisia: eskema formala, egitura harmonikoa eta akorde bakoitzaren eskela-akorde erlazioa eta ukatu behar diren tensioak ere aipatuz.</li> <li>Modu maiorrean idatzita dagoen doinu baten harmonizazioa, uniberso tonal maiorrearen akordeak erabiliz.</li> <li>Lehen hiruhilabete zehar lantzen diren konposizioak entregatzea, modu maiorrean errepikapen motibikoa landuz.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>Gelan egiten den lana, analisi ariketak, idatziak eta entzunaldiak: %ko 40a.</li> <li>Ikaslearen jarrera: %ko 10a.</li> <li>Hiruhilabete bukaerako azterketa eta hiruhilabete zehar egin diren lanak: Bien arteko %ko 50.           <ul style="list-style-type: none"> <li>Lehen eta bigarren ebaluazioak informatzekoak izaten dira, ikaslearen garapena eta jarrera egiaztatuz.</li> <li>Hirugarren ebaluazioa berriz, bukaerako ebaluazioa da. Bukaerako ebaluazioan 1etik 10ra, dezimalik gabeko nota izango da, gainditzeko 5 atera behar izanez, nota hau lortzen ez dutenek ikasturtea suspendituz.</li> </ul> </li> </ol>
<p><b><u>Bigarren hiruhilabete:</u></b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Diktaketa harmonikoaren ariketa: 8 konaseko egitura harmonikoak (4 konpaseko bi periodotan banatuta), modu maiorrearen gradu guztiak akorde zazpidun bezala erabiliz.</li> <li>Analisi-ariketa: eskema formala, egitura harmonikoa, analisi melodikoa eta motibikoa, erabili den baliabide konpositiboa adieraziz.</li> <li>Hiruhilabete zehar hainbat doinu herrikoiren harmonizazio egiten dira modu menorrean. Honetaz</li> </ol>	

gain, hainbat tema ere konposatzen dira, baliabide konpositiboak aplikatuz: nota gidariak, sekuentzi motibikoan osatuta diren doinuak, transformazio motibikoa eta bitarteko diseinuak ere landuz.

4. Hiruhilabete bukaeran obrak harmonizatuak eta konposatuak entregatuko dira.

**Hirugarren hiruhilabete:**

1. Diktaketa harmonikoa: 4-8 konpaseko egitura harmonikoa modu menorrean, modu honen akorde guztiak erabiliz.
2. Tema baten analisia: eskema formala, egitura harmonikoa, kadentziak, kadentzierdiak eta transformazio motibikoa. Analizatu behar den tema modu maiorrean bai menorrean egon daiteke.
3. ABA' forma duen tema baten harmonizazioa entregatzea, modu maiorrean nahiz menorrean, akorde diatoniko eta ez diatoniko guztiak erabili ahal izanez, egitura harmonikoa ikasle berak eginez.
4. Ikasturte honetako ikasleen obrak aurkezteko asmoz entzunaldia antolatuko da, ikasturtean zehar egin diren tema guztiak eskeiniz. Ikasle bakoitzak haren tema aukeratuko du. Bukaerako notan, temeen kalitatea egiaztatzeaz gain, partizipazioa ere kontuan izango da. Ikasturte honetan, ikasleak haren instrumentuan bakarrik jo dezake, ala nahi izan

ezkero, irakasleak pianoz lagunduta ere bai.

#### EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

##### GAIAREN ERREKUPERAKETA

1. Lehenengo ala bigarren ebaluazioan, gainditzen ez duten ikasleek, ikasturte bukaera aurretik, gaia errekupezeko aukera izaten dute, gainditu ez duten antzeko azterketa eginez. Ezetzko kalifikazioa lana ez entregatzeagatik gertatu ezkero, lana hori, irakasleak jarriko duen epe baten barruan entregatu beharko da.
2. Bigarren ebaluazioan, lehenengo ebaluazioa oraindik gainditzen ez bada, gaiaren izakera jarraia izanez, hirugarren ebaluazioan berdin egingo da.
3. Ekainaren bukaerako kalifikazioa ezetzkoa baldin bada, ohiz kanpoko frogak egin beharko da, bukaerako frogaren antzekoa izanez eta ikasturte guztian zehar landu diren gaien buruzko galderak egitea posible izanez. Era berean, ezetzko kalifikazioa derrigorrezko lanak ez entregatzeagatik gertatu ezkero, lan hauek, errekupezetako ohiz kanpoko azterketaren egunean, gaiaren irakasleari, entregatu beharko zaizkio.
4. Harmonia gainditu gabe ikasturtez pasatzen duten ikasleek, hurrengo ikasturtearen klaseetan errekupezatu beharko dute. Hurrengo ikasturtearen edozein ebaluaziotan gaintzi dezake, horretarako, irakasleak ebaluazio-batzarrari jakin araziko dio.

#### OHARRAK

<b>IKASTETXEA</b>	CPM FRANCISCO ESCUDERO MKP	<b>KODEA</b>	012681	<b>IKASTURTEA</b>	2016-2017
<b>IRAKASGAIA</b>	HARMONIA (BAXU ELEKTRIKOA, GITARRA ELEKTRIKOA, SAXOFOIA)	<b>MAILA</b>	IRAKASKUNTZA PROFESIONALEKO 4. MAILA		
<b>IRAKASLEAK</b>	IÑIGO PEÑA MARINAS				

HELBURUAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
<p>1. V7 eta subV7 akordeen ez ohizko jarraipenak ezagutzea, ariketa praktikoetan aplikatuz.</p> <p>2. Harmonia modala, gehien erabiltzen diren moduak, haien ezaugarri harmoniko eta melodikoak ondo ezagutzea.</p> <p>3. Modulazio-teknikak ezagutzea, eta modulazioan gertatzen den harmoniaren funtzionamendua menperatzea: Akorde modulagarriak, nota ezaugarria, e.a.</p> <p>4. Hainbat baliabide harmoniko ezagutzea eta praktikan jartzea: ostinatoa, nota pedala, egitura konstanteak.</p> <p>5. Akorde hibridoak ezagutzea. Haien funtzionamendua, tonalitate batean sor daitezken akorde posibleak, haien erabilpena eta sonoritatea, akorde hauen erabilpen arrunteak.</p> <p>6. Aurretik harmonizatutako doinuen ala tema "standard"-en berharmonizazioak, harmonizazio teknika ezberdinak erabiliz.</p> <p>7. Abesti-forma ezberdinak ezagutzea, haien gainean landuz. Bai analisiaren bai idazkeraren ikuspuntutik landuz, hainbat formetan osatuak: AABA, ABAC, ABCA.</p> <p>8. Bakoitzak haren temak konposatzeko eta konpontzeko hainbat baliabide harmoniko ezagutzea: soli,</p>	<p><b>1. Dominante akordeen ohiz kanpoko ebazpenak menperatzen direla erakustea</b></p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak, dominanteko akordeen ohiz kanpoko ebazpenak erabiltzeko eta haien konposizioetan praktikan jartzeko duen gaitasuna egiaztatuko da.</p> <p><b>2. Modulazioa ezagutzen dela eta menperatzen dela erakustea, bai temak analizatzeko bai konposizioak egiteko momentuan</b></p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak, tema modulagarriak analizatzeko eta konposatzeko duen gaitasuna egiaztatuko da, modulatzeko dauden aukera guztiak erabiliz.</p> <p><b>3. Konponketak eta konposizioak egiteko garaiari hizkuntza modala menperatzen dela erakustea</b></p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak, moduak ezagutzeko, bereizteko eta tema modalak idazteko duen gaitasuna egiaztatuko da</p>



<p>background, e.a., tema hauek konponketa egiteko gaitasuna lortuz.</p> <p>9. Temak konposatzea, ikasturtean zehar lantzen diren jazzeko prozedura harmonikoak aplikatuz</p> <p>10. Lanak erakusteko antolatuko diren entzunaldietan parte hartzea.</p> <p>11. Analizatzeko eta harmonia egiteko kapazitatea ondo garatzeko hainbat ikasketa-teknika eta ohiturak erabiltzea.</p> <p>12. Programaketaren edukietan sakontzeko erabiliko diren baliabide teknologikoak erabiltzea.</p>	<p><b>4. Laudunetarako harmonia ezagutzea eta menperatzea, bai temak analizatuz bai baliabide harmoniko honetan osatuta dauden temak idatziz</b></p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak, analizatzeko eta laudunetarako harmonia idazteko duen gaitasuna egiaztatuko da, harmonia tradizaionaletik kanpo dauden hizkuntzak ere menperatzen dituela erakutsiz.</p> <p><b>5. Pedala ezagutzen eta menperatzen dela erakustea</b></p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak, baliabide harmoniko hau menperatzeko eta era ezberdinetan erabiltzeko duen gaitasuna egiaztatuko da.</p> <p><b>6. Akorde inbertituen, hibridoen eta poliakordeen idazkera ezagutzea eta menperatzea</b></p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez ikasleak, baliabide harmoniko guzti hauek menperatzeko duen gaitasuna egiaztatuko da, partitura batean izendatuz eta hainbat konposiziotan praktikan jarritz.</p> <p><b>7. Harmonia kromatikoa menperatzea, bai analisisian bai konponketak ala konposizioak egiterakoan</b></p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez ikasleak, temak era kromatikoan berharmoni-zatzeko eta haren konposizioetan honelako sekuentzi harmonikoak erabiltzeko duen gaitasuna egiaztatuko da.</p>
--	---

	<p><b>8. Ikasturteko edukiak praktikan jartzeko eta hobeto ikasteko, baliabide teknologikoak erabiltzeko gaitasuna erakustea</b></p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak, ikasturtean zehar egiten diren lan praktikoak hobeto egiteko posible diren baliabide teknologikoak erabiltzeko duen gaitasuna egiaztatuko da.</p> <p><b>9. Ikasturtean zehar, ikasgai honetako maila honetan ikasitako edukiak praktikan jartzeko antolatuko diren entzunaldietan parte hartzeko interesa erakustea</b></p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak, ikasitako edukiak praktikan jartzeko eta haren bizitza profesionalean egin beharko duen moduan, haren musika publikoaren aurrean defendatzeko duen gaitasuna egiaztatuko da.</p>
--	---

#### EDUKIEN SEKUENTZIA

<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ez ohizko jarraipenaren definizioa, akorde dominanteen jarraipen motak, haien egiketa praktikoa</li> <li>2. Musika modalaren definizioa: hizkuntza modala, idazkera mota, modoak eta haien akordeak; nota ezaugarria, akorde primarioak eta sekundarioak, jazz estiloaren konzeptu modala, hainbat temaren berharmonizaziotan eta konposiziotan erabilpena, gerturatzeko akordeak, doinu modala.</li> <li>3. Modulazioa: definizioa eta sailkapena: modulazio zuzena, akorde pibot erabiliz, modulazioa bostdun zikloaren bidez, e.a.; modulazioaren nota ezaugarria, gertuko tonuak; modulazioan sortzen diren eskala-akorde erlazioak.</li> <li>4. Pedalaren eta egitura konstanteen definizioa eta egiketa: ostinatoa, estilo ezberdinetan egiten diren ostinato-motak.</li> <li>5. Akorde inbertituen, akorde hibridoen eta poliakordeen eraketa: definizioa eta sailkapena, tonu batean sortzen</li> </ol>
---

- diren akorde inbertuak eta hibridoak, akorde hauen erabilpena ariketa konkretuetan. Poliakordeen erabilera.
6. Berharmonizazioa hainbat baliabide harmoniko erabiliz: harmoniak doinuarekin duen erlazioa aldatuz, jarraipen harmonikoa aldatuz, patroï harmoniko sortuz, elkaraldatze modalaren akordeak erabiliz, doinua eta harmoniaren arteko tensioa haunditzen duten akordeak sartuz, doinuarekin kontrapuntua sortzen duten bajoaren martxa bat idatziz, pedalak eta egitura konstanteak sartuz, e.a.
  7. Forma ezberdinak dituzten kantak egitea: AABA, ABAC eta ABCA forma dutenak hain zuzen ere.
  8. Konborako konponketak egiteko hasiera: soli bi ahotsetara, background idazketa, sarrera, interludio eta kodaren idazketa; instrumentazioari sarrera: musika modernoan erabiltzen diren hainbat instrumenturen ezaugarri orokorrak.
  9. Hainbat temaren analisia, konposatzeko hainbat baliabide motibiko, eskema formal eta harmonikoa landuz
  10. Tema tonalak ala modalak konposatzea: ikasleak berak idazten dituen egitura harmonikoaren gainean, ikasturtean zehar ikasten diren baliabideak landuz.
  11. Entrenamendu auditiboa lantzea, egitura harmonikoen diktaketak eginez hainbat tonutan idatziak eta pianoan jotzen: lau ahotsetarako ariketak eginez.
  12. Antolatuko diren entzunaldietan partizipazioa, ikasten diren elementu harmonikoak praktikan jartzeko asmoz.
  13. Baliabide teknologikoen erabilpena, ikasturtean egiten diren ekintza praktikoa guztietan bereziki erabiliz.

## METODOLOGIA

- Klase bakoitzari dagozkion ariketak
- Eskema tonalak ala modalak, analisi, harmonizazio ala konposizio egin aurretik konzeptuen eskemak
- Hainbat temaren analisi musikalk. Analisi harmonikoa eta formala kasu guztietan derrigorrezkoa izango da. Temaren batean, idazkeraren baliabide konkretu bat garatu ezker, baliabide honen analisia azpimarratuko da.
- Ikasturte honetan ikasten diren konzeptu teoriko guztiek ez dute zentzurik izango praktikan erabiltzen ez badira. Klase honetan egiten diren ekintza guztiak, ikasgai honetan ikasten diren konzeptuak praktikan jartzeko pentsatuak daude. Klase teoriko batekin alderatuz, klase hauetan egiten diren ekintzak, benetako temeen gainean lantzen dira, edozein musikok egin beharko dituen lanak ere eginez.

- Doinuen harmonizazio eta berharmonizazioak, ikasitako konzeptu bakoitza praktikan jarritz.
- Konposizioak, ikasitako konzeptu guztiak praktikan erabiliz.

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
<p><b><u>Lehen hiruhilabete:</u></b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Diktaketa harmonikoa: 4-8 konpaseko egitura harmonikoa bai tonu maiorrean bai menorrean, V7 eta subV7 akordeen jarraipen bereziak erabiliz eta modulagarria ere izanez.</li> <li>2. Tonu maiorrean nahiz menorrean dagoen tema modulagarri baten analisi musikala, egitura formala, harmonikoa eta akorde bakoitzaren eskala-akorde erlazioa adieraziz.</li> <li>3. Hiruhilabete zehar egingo diren konposizio modulagarriak, hiruhilabetearen bukaeran entregatuko dira.</li> </ol> <p><b><u>Bigarren hiruhilabete:</u></b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Diktaketa harmonikoa: 8 konpaseko egitura harmoniko modalak</li> <li>2. Tema modal baten analisi musikala, egitura formala, harmonikoa, motibikoa eta eratzen duten moduak ere adieraziz. Honetaz gain, teman erabilitako baliabide konpositiboak ere adierazi beharko dira.</li> <li>3. Hiruhilabete zehar egingo diren tema modalak</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Eguneroko gelan egiten den lana: analisi ariketak, idatziak eta entzunaldiak: %ko 40.</li> <li>2. Ikasleak duen jarrera: %ko 10.</li> <li>3. Hiruhilabete bukaerako azterketa eta entregatzen diren lanak: %ko 50, bien arteko ertaina eginez.</li> </ol> <p>Lehen eta bigarren ebaluazioak informatzekoak izaten dira, ikasleak duen garapena eta jarrera egiaztatuz. Hirugarren ebaluazioak berriz, bukaerako ebaluazioaren karakterra dauka. Bukaerako kalifikazioa 1-10 artekoa izango da, dezimalik idatzi gabe, ikasturtea gainditutzaz emateko 5 lortzea <b>beharrezkoa</b> izanez.</p>

harmonizatuak eta konposatuak entregatu beharko dira.

**Hirugarren hiruhilabete:**

1. Diktaketa harmonikoa: 8 konpaseko egitura harmonikoa, akorde hibrido eta inbertituak ere erabiliz. Egitura hamonikoa tonala ala modala izan daiteke.
2. Tema baten analisi musikala, eskema formala, harmonikoa eta erabilitako baliabide musikalak adieraziz. Tema hau tonala ala modala izango da.
3. Hiruhilabeteen zehar, hainbat doinuren harmonizazio kromatiko eta hainbat konposizio egin behar dira, bukaeran entregatu behar izanez.
4. Ikasle guztiek parte hartzen duten entzunaldia, ikasturtean zehar egin diren tema guztiak interpretatuz. Ikasle bakoitzak entzunaldi honetan aurkeztu nahi duen tema aukeratu beharko du. Temaren kalitatea egiaztatzeaz gain, partizipazioa ere kontuan izango da, ikasturte bukaerako notan ere eragina eduki ahal izanez. Ikasturte honetan ikasleak haren instrumentuarekin bakarrik jo dezake, irakaslearekin pianoan lagunduta ere posible izan.

#### EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

##### IKASGAIAREN ERREKUPERAKETA

1. Lehen eta bigarren ebaluaziotan gainditu ez duten ikasleek, ikasturtea bukatu aurretik, errekupezeko aukera izango dute, gainditu ez duten azterketa antzeko bat eginez. Suspensoa lana ez entregatzeagatik sortu ezker, irakasleak proposatuko duen epe baten barruan, lana entregatu beharko da.
2. Bigarren ebaluazioan, lehen ebaluazioa oraindik gainditua ez badago, gaiaren karakter jarraitua dela eta, hirugarren ebaluazioan berdin egingo da.
3. Ikasturte bukaeran gainditu ez duten ikasleek, ekainean antzeko ohiz-kanpoko frogatik aukera izango dute, ikasturte bukaerako frogaren antzekoa izanez, ikasturtean ikasitako edozein gai agertu ahal izanez. Aurreneko bi ebaluazioetan egin den moduan, ezetzko kalifikazioa, lana ez entregatzeagatik baldin bada, lana hauek, ohiz-kanpoko frogatik egin behar den egun berean entregatuko dira.
4. Harmonia gainditu gabe ikasturtez pasatzen diren ikasleek, hurrengo ikasturtearen klaseetan errekupezatu beharko du. Gaia, hurrengo ikasturtearen edozein ebaluaziotan gaindi dezakete, irakasleak hala kontsideratu ezker eta Ebaluazio Juntari jakin arazi ezker.

#### OHARRAK

<b>CENTRO</b>	CPM FRANCISCO ESCUDERO MKP	<b>CÓDIGO</b>	012681	<b>CURSO ESCOLAR</b>	2016-2017
<b>ASIGNATURA</b>	ARMONIA (BAJO ELÉCTRICO, GUITARRA ELÉCTRICA, SAXOFÓN)	<b>CURSO</b>	3º ENSEÑANZAS PROFESIONALES		
<b>PROFESORADO</b>	IÑIGO PEÑA MARINAS				

OBJETIVOS	CRITERIOS DE EVALUACIÓN
<p>1. Conocer los elementos básicos teóricos necesarios para el buen conocimiento de la armonía tonal-</p> <p>2. Conocer y dominar el cifrado de los acordes, común a los diferentes estilos propios de la música moderna.</p> <p>3. Conocer las diferentes posibilidades de encadenamientos II-V, trabajando sus diferentes tipos, aplicándolos en los trabajos prácticos que para ellos e diseñen: análisis, armonización, composición, etc.</p> <p>4. Manejar con soltura todo tipo de acordes y en cualquier posición, conociendo las tensiones disponibles de cada uno de ellos y aplicándolos en los diferentes trabajos que para ello se consideren oportunos.</p> <p>5. Identificar mediante el análisis de partituras de temas standards los diferentes aspectos, procedimientos compositivos y transformaciones motivicas que podemos encontrar en un tema escrito dentro del sistema tonal moderno.</p> <p>6. Reconocer todos los recursos necesarios para poder realizar armonizaciones y rearmonizaciones dentro de la música tonal moderna.</p> <p>7. Componer temas trabajando diferentes recursos melódicos, escribiendo la melodía y el cifrado</p>	<p><b>1. Dominar el conocimiento y manejo de los diferentes elementos básicos propios de la armonía tonal</b></p> <p>Con este criterio de evaluación se valorará el conocimiento por parte del alumno de los elementos que forman parte de la armonía tonal, mostrando a su vez un control suficiente para poder aplicarlo en su vida cotidiana de forma correcta.</p> <p><b>2. Mostrar el control del cifrado propio de la música moderna, tanto a la hora de identificar los acordes propios de un tema, así como a la hora de escribir su propias melodías</b></p> <p>Con este criterio de evaluación, se valorará la capacidad de identificación de los acordes propios de la música moderna sobre una determinada partitura, así como la capacidad de clasificar y escribir los acordes correspondientes a una melodía de propia composición.</p> <p><b>3. Dominar el conocimiento de los diferentes acordes y sus diferentes posiciones, mediante la realización de ejercicios prácticos</b></p> <p>Con este criterio de evaluación se valora la capacidad del alumno o alumna para reconocer e identificar los diferentes acordes que forman parte de la armonía</p>

